



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Migraziorako Euskal Itunarekin bat egiteko proposamena

Ermuko Udalak adierazi nahi du bere eskumenen esparruan 2018ko migraziorako euskal itunaren printzipioak babesteko eta ezartzeko asmoa duela. Era berean, atxikitxe horren ondoriozko konpromisoak bere gain hartzen ditu:

- 1.Itunarekiko atxikimenduak bere baitan dituen printzipio eta balioekiko oinarritzko konpromisoa onartzea suposatzen du, eta horren arabera jokatzeko, bai banakako mailan, bai erakunde mailan.
- 2.Itunarekiko atxikimenduak ageriko izenpetzea suposatzen du, bere funtsezko edukia eta adierazpen sinbolikoak onartzea, bere garapenean eta gizarteratzean ahal den neurrian parte-hartzea, eta, batez ere, oinarrian dituen printzipio eta balioak egiazko bilakatzeko egiturak, arauak eta protokoloak antolatzea.
- 3.Itunarekiko atxikimenduak intentsitateak dakartza: bere edukiek dokumentua izenpetuko duten erakunde guztiak lotzen dituen arren, konpromiso hau handiagoa izan behar da, aginduzko forma hartu arte, instituzioen kasuan, erantzukizun publikoren bat duten pertsona eta erakundeetan.
- 4.Itunarekiko atxikimenduak, entitate publiko eta pribatuak, eta baita gizarte-erakundeak, euskal gizartean handituz doan aniztasuna, aukera gisa, kudeatzeko akordio sozial eta instituzionalak lortzea suposatzen du, bai bere aktibitate alor espezifikoan, bai aktibitate hauek garatzen dituzten eremu geografikoetan.
- 5.Itunarekiko atxikimenduak, bere printzipioak garatu eta bermatuko dituzten neurriak sustatuz, zuzenean edota zeharka, hauek hautsiko dituzten jokabide, jarrera eta adierazpenen aurrean postura aktibo bat hartzea dakar.
- 6.Itunarekiko atxikimenduak, era berean, berri dugun xenofobia eta diskriminazio forma guztientzako alerta eta salaketa mekanismoak ezartzea galdatzen du.
- 7.Itunarekiko atxikimenduak ez du mugatzen, aitzitik, bere printzipioak eta balioak urratzen dituen edozein neurri politikoren aurrean gaitasun kritikoa indartzen du. Itunarekiko atxikimenduak izenpetzaileak erabat legitimatzen ditu, instituzio politikoei gogoratzeko, edozein egoeratan, erantzukizun handienarekin jokatzeko eginbidea dutela immigrazioaren eta aniztasunaren gaiekin zerikusia dituzten kontuak heltzeko orduan.
- 8.Azkenik, itunarekiko atxikimenduak, ebaluazio mekanismoen ezarpena onartzea suposatzen du, gizarte eta instituzio eremu askotarikoetan bere aplikazio efektiboa egiaztatuko duen Jarraipen Batzordearen bitartez, praktika egokien egiaztatze eta onarpen forma desberdinak garatuz.